Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

# baikara

Donostia · Ehige · Gipuzkoa

Noviembre 2012ko azaroa



# Samaniegok Tolosako Eskulturastean parte hartu du



ACTUALIDAD

Ugaro inaugura la nueva Campaña escolar del Topic



EHIGE

Eskola-jantokietako dekretu berri baten aldeko agiria

# BELDUR BARIK
# LEHIAKETA
# 2012



## ...hamaika jarrera hamaika aukera!

**Zein da zure Beldur Barik jarrera?**
**Erakutsi ezazu!**

**www.beldurbarik.org**

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

ANTOLATZAILEAK
ORGANIZA

BERDINSAREA EUDEL

BULTZATZAILEAK
IMPULSA

EMAKUNDE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

LAGUNTZAILEAK
COLABORA

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

eitb

## donostia

04-08



**p.4 Interpretazio zentro berria ireki dute Ulian**
p. 5 Euskara sustatzeko ekimenak hiriko auzoetan
Concierto para escolares
p. 6 Oferta educativa 2012/2013 en Cristina Enea
p. 7 Eskola Txikiak Bizirik
p. 8 Breves-Laburrak

## ehige

09-16




**p.10-11 Novedades curso 2012-2013**
p. 12-13 Hezkuntza lege berria?
p. 14 Eskola-jantokien dekretu berri baten aldeko agiria
p. 15 Por una escuela pública y laica: la religión fuera del horario escolar

## gipuzkoa

17-24



**p. 17 Las emociones cobran protagonismo en los Cursos para madres y padres que imparte Baikara**
p. 18 Ikasi, bizi eta elkarbizi eskolan
p. 19 Samaniegok Tolosako Eskulturastean parte hartu du / Ugaro inaugura la nueva campaña escolar del Topic
p. 20 Txingudi BHI, Irun. 2012ko ekintzak
p. 21 Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak parte hartze aktiboa Lasarte-Oriako euskararen maratoian / Domingo Agirre eskola: "Junetorrian"
p. 22 El Instituto Zuazola-Larraña participa en el proyecto educativo Comenius
p. 23 Hernanik 40 enbaxadore berri ditu, Comenius programari esker / Elizalde ikastetxeko ikasleak, ingeleseko barnetegian

Foto de portada: Klisk

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**ARGITARATZAILEA:** BAIKARA FEDERAZIOA
Baso-Txiki Kalea, 36, atzealdea. 20015 Donostia. Tfno 943327208. Fax. 943274977.
e-mail: baikara@baikara.org / rosa@baikara.org
**Koordinatzailea:** Rosa Izquierdo. **Erredakzioa:** Eskulturastea (Tolosa); Txingudi (Irun); Zumaburu-Sasoeta (Lasarte). **Argazkiak:** AM Press; Topic; Txingudi (Irun); Hernani BHI; Zuazola-Larraña (Oñati).
**Diseinua:** AM Información. **Inprimatzailea:** SVP. **Lege gordailua:** ISSN 1697-9109

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

# INTERPRETAZIO ZENTRO BERRIA IREKI DUTE ULIAN



Uliako Interpretazio Zentrua ireki zuten uztailean eta ordutik asko dira bertaratu diren herritar eta atzerritarrak.

## Ate irekien jardunaldia egin dute hedabide eta erakundeetako ordezkariekin batera

Uliako Interpretazio Zentro berriak joan den uztailaren 28 an bere ateak behin-betikoz ateak ireki aurretik, ate irekien jardunaldia egin genuen bertan, hedabide eta erakundeetako ordezkariekin aurkezpena eta bisita gidatua eginez.

Uztailaren 28an ireki zituen ateak publiko orokorrarentzat Uliako Interpretazio Zentro berriak, baina egun batzuk lehenago hedabide eta erakundeetako ordezkarientzat bisita gidatua egin zen. Ekipamenduaren kudeaketa Cristina Enea Fundazioak hartuko du bere gain, era honetan, koordinatzen duen hirugarren udaldotazioa bilakatuz, Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxearekin eta Urgulleko Natur Txokoarekin batera.

Donostiako Udalak, fundazioaren bidez herritarren artean sustatu nahi duen ingurumen eta iraunkortasun baloreetara bideraturiko eraldaketa adeitsua lortzeko tresna eta baliabide didaktiko garrantzitsuak dira aipatu hiru gune horiek. Interpretazio Zentroaren kasuan, Ulia bezalako leku berezi eta enblematikoa ezagutzera emateko balioko du, bere ingurune fisiko, natural eta historikoan sakonduz.

Interpretazio zentro berriak jarduera didaktiko eta kulturalez beteriko egitaraua izango du, tailer didaktikoekin, Uliatik zehar antolatutako ibilbideekin, zentrotik bertatik eginiko bisita gidatuekin, proiekzioekin, behin-behineko erakusketekin... Horiek guztiek, diseinuan parte hartu duten talde ekologista, kultural eta sozial ezberdinen ekarpenak bilduko dituzte.

Era berean, elementu ezberdinak manipulatuz eta eurekin elkar-eraginez, Uliako elementu bereizgarrienetara gerturatzea ahalbidetuko duen erakusketa iraunkorra ere izango da. Laburbilduz, Uliako Interpretazio Zentro berriak ondorengo gai-esparruak landuko ditu: Uliako ingurune fisikoa, haitzak eta lurrak; fauna eta flora; itsas-ekosistemak; historia, ondarea eta paisaiaren eraldaketa kulturala.

### BALIABIDE ETA EZAUGARRI TEKNIKOAK

Aipaturiko esparruak lantzeko, zentroak baliabide didaktiko hauek izango ditu: erakusketa iraunkorrerako gela, hitzaldiak eskaintzeko erabilera anitzeko gela, tailer didaktikoei eskainitako gela. Gainera, Uliari buruz publikaturiko informazioa bilduko duen dokumentazio-gune bat izango du, baita kontsultak egiteko gune gehigarri bat ere.



Esan beharra dago, bai altzariak baita erakusketa-ekipamendua ere, bazertutako palet industrialen egurarrekin eginak daudela (Paleikeko lagunek eginak), eta eserlekuen, bankoen eta aulkien bigungarriak berriz, Kubo Salak emandako komunikazio kanpainetako banderolekin. Honela erakutsi nahi da berrerabilera irtenbide egokia dela hondakinen prebentziorako, material horiek berriz ere ekoizpen-zikloan sartuz.

Era berean, zentroak baratze ekologikoa ere edukiko du ondoan, uren birziklaketa erraztuko duen sistemaz hornitua, bai eta hainbat konpostagailu ere, non tailer esperimentalak burutuko diren.

Zentroaren ezaugarri teknikoei dagokienez, aipatu beharra dago 600 metro karratuko azalera duen lursailean kokatua dagoela, horietarik 541 m. eraikitako azalera direlarik. Beheko solairuak, biltegi gisa erabiliko denak, 326 metro karratu erabilgarri ditu, gehi beste 86 m. sotoarenak.

# EUSKARA SUSTATZEKO EKIMENAK HIRIKO AUZOETAN

**Martutenen jarriko da martxan aurreneko esperientzia, bertako eragileekin izandako elkarlanari esker**

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen erabilera areagotu nahi du. Azken urteotan euskararen ezagutza asko handitu da eta aurrerapauso nabarmenak izan dira alor horretan. Euskararen erabilera ordea, ez da maila berean handitu, eta kaleko hizkuntza nagusia gaztelerak izaten jarraitzen du zenbait lekutan.

Auzoko gurasoei 60 orduko ikastaro berezitua eskainiko zaie eta ahalegin berezia egingo da euskara ez dakiten gurasoak anima daitezen izena ematera.

Bestalde, motibazioa lantzeko Zergatik ez? tailerrak antolatuko dira herritarrak euskararen erabileraren garrantziaz jabe daitezen. Era berean, mintzalaguna taldeak antolatu eta indartu nahi dira auzoan euskara ikasten ari direnak euskara praktikatzeko aukera izan dezaten. Merkataritza alorrean berriz, Udala aurrera eramaten ari den plangintza auzoan inplementatzeko estrategia landuko da.

## HAURREI ZUZENDUTAKO 'PARKETARRAK' EGITASMOA

"Parketarrak" ekimenaren helburu nagusia haurrak kalean eta parkeetan jolasean ari direnean euskara erabiltzea da.

Urtxintxa eskolak aurrera eramango duen egitasmo hau bi programatan banatuta dago: Zabu-Zibu izenekoa, 3-5 urte bitarteko haurrentzat eta beraien familientzat antolaturikoa; eta Txirrintxon programa 6-9 urte bitarteko haurrentzat dena.




Euskara sustatu nahi dute Donostiako udalak eta hiriko eragileek.

# CONCIERTO PARA ESCOLARES

**Los días 11, 12 y 13 de diciembre, de la mano de la OSE**

En esta IV edición de los Conciertos para Escolares que el Aula de Música de la Orquesta Sinfónica de Euskadi organiza con la colaboración del Sección de Educación del Ayuntamiento de San Sebastián, os proponemos el concierto sinfónico titulado "MENÚ DE INVIERNO", un concierto dirigido a alumnado de Educación Primaria y de carácter lúdico, que juega con algunas coincidencias o similitudes entre las características de la música y de otro arte muy cercano a nuestro alumnado: la gastronomía.


NEGUKO MENUA

MENÚ DE INVIERNO

SARRERAKOAK - ENTRANTES

LEHEN PLATERA - PRIMER PLATO

BIGARREN PLATERA - SEGUNDO PLATO

POSTREAK

FINALE

La cita será los días 11, 12, 13 y 14 de diciembre de 2012 en el Auditorio de la sede de la Orquesta de Euskadi, situada en el Paseo Miramón, número 124, de San Sebastián. El concierto durará 55 minutos, a partir de las 10.30 horas, en sesión única y en bilingüe. La interpretación de las piezas correrá, como no podía ser de otra manera, a cargo de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, con su director Jon Malaxetxebarria. Ofrecerán un repertorio de Offenbach, Mozart, Borodin, Rossini, Grieg, Aita Donostia.



# OFERTA EDUCATIVA 2012/13 EN CRISTINA ENEA

## Esta oferta está integrada por actividades didácticas de carácter gratuito

Para Fundación Cristina Enea, uno de los pilares fundamentales de su actividad ha sido desde sus inicios la concienciación y sensibilización ambiental dirigida al público escolar, como herramienta para dotar a las generaciones más jóvenes de instrumentos para actuar de forma más consecuente y responsable con el medio que les rodea..

Por ello, Fundación Cristina Enea destina una gran parte de su esfuerzo a diseñar cada curso escolar una oferta educativa dirigida a los centros escolares tanto de San Sebastián como de los alrededores, con actividades didácticas para el alumnado de todos los ciclos: Educación Infantil, Primaria, Secundaria y Bachillerato, además de actividades también para el público adulto.

Siguiendo en la línea de calidad de cursos anteriores, el Departamento de Educación de Fundación Cristina Enea ha trabajado para diseñar una nueva y mejorada Oferta Educativa para el curso 2012/2013, que refuerce su carácter de complemento educativo para el profesorado. Así, en base a las aportaciones del alumnado y el profesorado que han participado en las actividades, esta Oferta Educativa ofrece nuevas actividades, que vienen a engrosar y completar la oferta de cursos pasados. Concretamente, los nuevos talleres son los siguientes:

· Caperucita Roja en la ciudad
· Pío-pío
· Cristina Enea escondido
· Plantas medicinales y ungüentos naturales
· [Re]descubriendo Cristina Enea
· Aguas, aceites y jabones
· Consume responsablemente

Esta Oferta Educativa 2012/2013 está integrada por actividades didácticas de carácter gratuito. En concreto, se han diseñado los siguientes talleres e itinerarios: 5 actividades dirigidas al alumnado de Educación Infantil, 10 para Educación Primaria, 7 para Educación Secundaria y 4 para Bachillerato, además de 4 más diseñadas para el público adulto. Para ello, se ha editado la publicación 'Oferta Educativa 2012/2013', donde los centros interesados pueden consultar las actividades que se ofertan para cada uno de los ciclos educativos, además de información adicional.

La publicación se ha distribuido entre los centros escolares del territorio, y ya se encuentra colgada en la web de Fundación Cristina Enea, para que cualquier persona interesada la pueda consultar.

### V CONCURSO DE CUENTOS AMBIENTALES

El tema de este curso es la alimentación y el medio ambiente, respondiendo a la pregunta ¿TE VAS A COMER EL MUNDO?

A: 3, 4, 5 y 6 de Educación Primaria. Euskera.
B: 3, 4, 5 y 6 de Educación Primaria. Castellano.
C: 1, 2, 3 y 4 de Educación Secundaria. Euskera.
D: 1, 2, 3 y 4 de Educación Secundaria. Castellano.

Más información: 943453526 · cristinaenea@donostia.org · www.cristinaenea.org








Igeldoko eskola txikiak zerbitzu ona eskaini nahi die herritarrei.

# ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK

## Igeldo eta Zubietako eskola txikiek diru laguntzak jasoko dituzte beste ikastetxeek dituzten zerbitzu berberak izan ditzaten

Donostiako Gobernu Batzarrak bi diru laguntza onartu ditu Igeldoko eta Zubietako eskola txikietako guraso elkarteentzat. Laguntza horien helburua da ikastetxe horietako ikasleek aukera berdintasuna izatea bestelako ikastetxe publikoetako ikasleen aldean, hirigunean ez egon arren, aukera berberak izan ditzaten, gurasoek zama ekonomiko handiagoa jasan behar izan gabe.

Horiek horrela, Igeldoko Mendizorrotz guraso elkarteak 3.961 euroko zuzeneko laguntza jasoko du. Diru hori erabiliko dute pertsona bat kontratatzeko, hala, 08:00etatik 09:30ak arteko zaintza gela bat ezarri ahal izateko; baita igerilekurako garraioa eta eskola txikien urteko jaira joateko autobus zerbitzua ordaintzeko ere.

Zubietako eskola txikiko gurasoen elkarteak, bere aldetik, 2.908 euroko laguntza jasoko du, eskola barruko nahiz eskolaz kanpoko hezkuntza jarduerak finantzatzeko.

Laguntzaren bitartez ordainduko dituzte 20 ume autobusez Usurbilgo kiroldegiko igeriketa ikastaroetara eramatea, 3 eta 9 urte bitarteko haurren ingelesezko eskolak, 7 urtetik gorako haurrek egiten duten antzerki dantza ikastaroa eta uztaileko eta abuztuko udako txokoak (haietan, aurten 3 eta 12 urte bitarteko 46 neska-mutil parte hartzekoak dira).



Igeldoko eskola txikia.

Hezkuntzako zinegotzi Naiara Sampedroren ustez, beharrezkoa da eskola txikiei merezi duten balioa aitortzea. Adierazi duenez, horrelako eskolak babesteko esparrurik egokiena irakasleen, guraso elkarteen eta Administrazioaren arteko lankidetza da: "Eskola txikiek berezko ezaugarriak dituzte, tartean euskaldunak direla eta sei ikasgela edo gutxiago dituztela, eta ikuspuntu guztietatik begiratuta aparteko eskolak dira, eredugarriak, eta, noski, babestu eta sustatu beharrekoak. Eta diru laguntza hau horretara dator".

Gipuzkoan orotara 28 eskola txiki daude eta horietako bi Donostian daude: Igeldon eta Zubietan. Eskola txikia gaur eguneko eskola da, eskola modernoa, kalitatekoa, non haurrak talde txikietan dauden, adin desberdineko haurrak elkarrekin, metodologia propio batekin, irakaskuntzaren esparruan pedagogia berritzailea sortuz. Eta pedagogikoki interesgarriak badira, gizarte ikuspuntu batetik ere inportanteak dira, izan ere, herriarekiko eta naturarekiko harreman estua garatzen laguntzen dute eta herriko dinamiketan inplikatzen laguntzen dute, herriari bizitza eta bizipoza emanez.

Horregatik guztiagatik Udal Gobernuak eskola txikien aldeko apustua egin nahi du. Sampedroren hitzetan politika orekatzaileak bideratu behar dira eskola txikien kalitatea bermatzeko eta bertako ikasleek aukera berdinak izateko, "izan ere eskola hauek bere gabeziak ere izaten dituzte; herriek, oro har, zerbitzu gutxiago izaten dituztelako eta hartara eskola kanpoko jarduerak antolatzea zailtasun gehiago ditueIako. Zentzu horretan gurasoen elkarteak arduratzen dira askotan eskola orduetatik kanpoko ekintzak antolatzeaz.

Dirulaguntza hauek bide horretan doaz, hutsune horiek betetzera, haurrek euren herrian egon behar dutelako. Herri baten altxorra bertan bizi diren pertsonak dira, eta horien artean, altxor handiena, umeak dira".

# BREVES/LABURRAK

## 20 DE NOVIEMBRE, DÍA UNIVERSAL DE LA INFANCIA

Un año más celebramos el Día Universal de la Infancia y la aprobación de la Convención de los Derechos de la Infancia. Este año la celebración se centrará en los diversos espacios municipales con una amplia programación para niños, niñas y jóvenes de todas las edades. Por un lado, en todos los Gaztelekus de la ciudad, durante esta semana (del 20 al 24 de noviembre), bajo el título "La semana de los Derechos Humanos", se llevarán a cabo talleres, juegos, proyección de películas, etc. en relación a los derechos de las y los más jóvenes. Dentro de esta programación, el sábado día 24, se ofrecerán diversas actividades relacionadas con el día contra la violencia a las mujeres.



Asimismo, los Haurtxokos de los diferentes barrios se unirán a la campaña de UNICEF en la defensa de los derechos humanos de la infancia. Mediante el cuento de "Cucho y Katar" junto con las diversas actividades que lo acompaña, el día 21 de noviembre en todos los Haurtxokos menos en el del Antiguo que será el día 24, se trabajarán derechos básicos como el derecho a la escuela y a aprender, el derecho a jugar, el derecho al trato igualitario, etc. con el objeto de colaborar en la tarea de sensibilizar y educar a los niños y niñas más jóvenes.

Por otro lado, en las bibliotecas municipales, del 19 al 23 de noviembre, se llevará a cabo la actividad llamada la "Hora del Cuento" como es habitual, pero esta vez teniendo como eje los derechos de la infancia se leerán cuentos de Patricia Geis, cuyos protagonistas tienen que trabajar diariamente para poder comer. De esta forma, mediante la fantasía y la imaginación, se pretenden trasmitir valores de igualdad para entender que todos los niños y niñas son iguales en el mundo aunque sus derechos no se respeten de igual forma.

Además, junto con AVAIM (Asociación Vasca para la Ayuda a la Infancia Maltratada), se va a difundir entre los centros escolares de San Sebastián, un calendario con los doce derechos más significativos de la infancia, uno por mes para que desde los centros educativos trabajen y visibilicen estos derechos a los y las estudiantes.

Las diferentes actividades han sido organizadas por La Casa de la Paz y los Derechos Humanos, el área de Juventud y Donostia Kultura. Cuentan con el apoyo económico del Departamento de Justicia y Administración Pública del Gobierno Vasco.

## 'ONDARRETA, LA CÁRCEL DEL SALITRE', EN AIETE

El alcalde de San Sebastián Juan Karlos Izagirre presentó la exposición 'Ondarreta la cárcel del salitre' en el Centro Cultural Aiete, acompañado por el comisario de la exposición Juantxo Egaña, el historiador y escritor Iñaki Egaña y la directora de Derechos Humanos y Memoria Histórica de la Diputación Foral de Gipuzkoa Marina Bidasoro. Dos personas que estuvieron presas en la prisión, Pilar Garciandia y Marcelo Usabiaga.

La cárcel de Ondarreta fue abierta en 1890, para convertirse en prisión provincial, en la que mezclaban a todo tipo de presos y presas, pero desde 1931 se agolparon sobre todo presos/as políticos/as. A partir de 1936, los franquistas encarcelaron a miles de personas, muchos de ellos fueron torturados y al menos 600 fusilados por los responsables franquistas. Las protestas políticas y las peticiones de libertad fueron desoídas. La exposición está compuesta por 38 fotos, un gran mural con numerosos nombres de reclusos/as y fusilados/as, más de 50 objetos que pertenecieron a los/as encarcelados y piedras que fueron parte de la estructura de la cárcel y las han recuperado la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

**Exposición: 'Ondarreta la cárcel del salitre'.**
→ **Fechas:** Del 28 de septiembre al 12 de diciembre.
→ **Lugar:** Centro Cultural Aiete. De martes a viernes de 16:00 a 20:30. Sábados: de 10:00 a 14:00 y de 16:30 a 20:00 horas. Domingo de 10:00 a 14:00.





## IRUDI, SOINU ETA KOMUNIKAZIO IKASTAROA

Donostia Kulturak ikus-entzunezkoak sortu (animazioa, fikzioa, ...) nahi dituzten haur eta gazteei zuzendutako ikastaroa eskaintzen du.

Bideo eta ikusentzunezkoen munduarekin dagoeneko esperientziaren bat izan duten haur eta gazteei zuzendua, zine eta bideo sorkuntza esperimentalaren bidez haur eta gazteen kreatibidadea landu nahi da bi moduluren bidez.

**DATAK:**
→ **1. Modulua,** urriaren 20tik otsailaren 23ra.
→ **2. Modulua,** martxoaren 2tik ekainaren 1ra.

**AURKEZPENA:**
→ **1. Modulua.**
**ANA LEZETA, ikusentzunezko lengoaia.** Ikusentzunezko lenguaietan dagoeneko esperientzia duten haur eta gazteek zine eta bideo sorkuntzunaren aukerak ezagutu eta esperimentatu ahal izango dituzte.

→ **2. Modulua.**
**IZIBENE OÑEDERRA, animazioa.**
Soinu banda bat oinarri hartuta eta animazio teknikak eskura izanda, aldiro handitu eta eraldatzen doan proiektu baten sartuko gara. Denon artean sortuko dugu gidoia eta soinu bandan integratu, eta polikiro story-boardaren bidez marrazkitan bihurtuko da. Eginkizun anitzetaz arduratuko diren taldeak eratuko ditugu, bidean animazio independentetik eratorritako hainbat pieza erakutsiko dira.

## FAMILIAREKIN JOLASEAN




Programaren helburu nagusia da gurasoak beren seme-alabekin jolastea eta beren denboraren zati bat haiekin pasatzea. Hori dela-eta, Haurtxokoen larunbatetako ordutegiaren zati bat haientzat da.

Helduei ohartarazi nahi diegu jolasaren garrantziaz, jolasak haurren garapenean duen garrantziaz, hain zuzen. Izan ere, jolasa jarduera libre eta berezkoa da, plazera ematen du, bere baitan du helburua eta ikasteko ere balio handia du.

Programa honek jolasa, dibertsioa eta harreman familiarrak sustatu nahi ditu. Jolasek, jostailuek eta senitartekoekiko harremanek haurren nortasunaren garapenean duten garrantziaz ohartarazi nahi diegu gurasoei eta gainontzeko senitartekoei, garapen horretan esku har dezaten.

Astero, 6 eta 12 urte bitarteko haurrak beren guraso edo senitartekoekin joan ahal izango dira Haurtxokora. Programa Haurtxoko hauetan gauzatutzen da, larunbatetan, 16:30etik 18:30era: Amara; Bidebieta; Egia; Gros; Intxaurrondo eta Martutene. Aieteko haurtxokoak beste ordutegi bat izango du: igandeetan, 11:00 –13:00.

Haurtxoko bakoitzak bere programazioa du. Bi hilabeteko programazioak egin dira Haurtxoko bakoitzerako (azaroa-abendua), eta hauek dira bertan jasotako ekintzak: lantegiak; antolatutako joko-jolasak; egun bereziak ospatzea; jolas librea.

Ekintza horietara guztietara, umeak gurasoekin joan ahal izango dira, baina, baita ere, beste edozein senitartekorekin. Neba-arrebak ere joan ahal izango dira haurtxokora, sei urte baino gutxiago badituzte ere.

Gainera, horrela, haurra protagonista bihurtzen dugu, berak erakusten baitizkie bere senitartekoei hain ondo ezagutzen dituen espazioak, jolasak eta jostailuak.

ehige
gurasoen elkartea

2012ko azaroa





# Guraso Elkarteen hezkuntza-jarduera onen bigarren jardunaldia


10




NOVEDADES DEL CURSO

12



HEZKUNTZA LEGE BERRIA?

14



ESKOLA-JANTOKIETAKO DEKRETU BERRI BATEN ALDEKO AGIRIA

15



POR UNA ESCUELA LAICA

# NOVEDADES DEL CURSO 2012-2013

**Ya está en marcha un nuevo curso que hemos empezado con fuerzas para seguir trabajando por una Escuela Pública Vasca de calidad. Aquí van algunas novedades...**

+Info: www.ehige.org

## ELECCIONES A CONSEJOS ESCOLARES

El curso ha comenzado con la celebración de las elecciones a Consejos Escolares. Hemos realizado una campaña con carteles y trípticos, con el objetivo de animar a padres y madres a participar en el máximo órgano de decisión del centro.

Sabemos que no son buenos tiempos para la participación, pero sabemos también que nuestra participación en los centros escolares es esencial para lograr el éxito escolar de nuestras hijas e hijos.

Las y los nuevos consejeros, como siempre, contarán con apoyo de las federaciones y de EHIGE para desarrollar su labor de la manera más efectiva posible.

En este curso publicaremos una nueva edición de la "Guía práctica para padres y madres que participan en los Consejos Escolares", que pretende contribuir al reto de favorecer la participación de las familias en los máximos órganos de decisioón de nuestras escuelas e institutos. Es una guía breve y sencilla, una herramienta práctica, al fin y al cabo, para resolver las dudas más frecuentes de todas las personas que ejercen la responsabilidad de ser consejeros y consejeras en cada Consejo Escolar.






## 2ªJORNADA DE BUENAS PRÁCTICAS DE AMPAS Y 3ª EDICIÓN DEL CONCURSO

El próximo 17 de noviembre celebraremos en Bilbao la segunda Jornada de buenas prácticas de AMPAs, en la que presentarán sus experiencias las seis AMPAs ganadoras de la segunda edición del concurso.

Como el año pasado, contaremos con una ponencia interesante y aprovecharemos la ocasión para compartir nuestras experiencias e inquietudes.

Ese mismo día dará el pistoletazo de salida la 3ª edición del Concurso de buenas prácticas, en la que pueden participar todas las AMPAs asociadas a las federaciones que forman EHIGE (Baikara, BIGE, Denon Eskola e Ikas-bi). Entregaremos los tres premios (1.500, 1.000 y 500 euros) en la 22ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que celebraremos en Murgia (Araba) el primer domingo de junio de 2013.




## PUBLICACIÓN DE 'EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA HARATAGO'

En mayo pasado presentamos públicamente "Euskal Eskola Publikoa haratago", un documento elaborado por EHIGE, BIHE y Sarean que recoge los retos que a nuestro entender tiene la Escuela Pública Vasca. Tenemos la confianza de que será tenido en cuenta en las políticas educativas que se lleven a cabo de ahora en adelante.

Antes de que finalice el año publicaremos el documento y lo recibiréis en vuestros centros educativos. Mientras tanto, podéis descargarlo en: www.euskaleskolapublikoa.eu

Seguimos trabajando conjuntamente con las direcciones en el foro Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar, porque uniendo nuestras fuerzas conseguiremos una Escuela Pública Vasca de calidad.



## 22ª FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Ya estamos preparando la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que este año celebraremos en Murgia el 2 de junio de 2013. Os mantendremos informadas e informados.

## INICIO DE CURSO

Según el Consejo Escolar de Euskadi, hemos empezado el curso con más alumnado y menos profesorado. En EHIGE nos preocupa especialmente que se hayan perdido plazas que dan respuesta a la diversidad y a una atención más individualizada (Pedagogía Terapéutica, especialistas de refuerzo lingüístico, interculturalidad, desdobles, apoyo educativo), ya que éstas garantizan una escuela más inclusiva y la equidad. Y por supuesto, cuanto más alumnado tenga que atender un profesor o profesora, peor será la atención.

Por otra parte, desde el curso pasado se están dando problemas por la aplicación estricta del decreto que regula el transporte escolar, ya que éste indica que sólo el alumnado de infantil y primaria que viva a más de dos kilómetros de su centro de referencia y el de secundaria que viva a más de cuatro tiene derecho a transporte subvencionado. Los problemas se están dando principalmente en poblaciones dispersas de Araba, aunque también se han dado en otras poblaciones de la CAV. En EHIGE pensamos que hay que tener en cuenta las características específicas de cada recorrido y no aplicar siempre la normativa de forma estricta.

En este curso 2012-2013 las y los alumnos de 3º de la ESO no van a disfrutar del Programa de Gestión Solidaria de Libros de Texto, tal y como estaba previsto, ya que el Gobierno vasco ha decidido aplicar una moratoria a este programa de préstamo. Hasta el momento, todo el alumnado de Primaria y de 1º y 2º de la ESO participa en este Programa, en el que los libros son propiedad del centro y las familias aportan aproximadamente un 20 % de su costo. El material se renueva cada cuatro años. En EHIGE tenemos claro que todo el material curricular debe ser gratuito y que es necesario avanzar en el uso de las nuevas tecnologías sin depender tanto de los libros de texto.




## FAMILIA-POLITIKEI BURUZKO KONGRESUA

"Familia-politikak: gizarte kohesioa lortzeko inbertsioa" izeneko kongresua ospatu berri da Gasteizko Europa Jauregian, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailak antolatuta.

**Kongresuaren helburuak:**

• Familia-politikan inbertitzeko ahalmenean sakondu, betiere hainbat sistematan familienganako itzulera ekonomiko eta prebentziorako bidean.

• Europa mailako eta estatu mailako joera kontuan hartuta, familia-politikaren testuinguruan kokatu.

• Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren aurkezpena.

• Erantzukidetasun, bateragarritasun eta gurasotasunari buruz kontzeptualizatu eta elementu hauek batzen dituzten politiken aplikazioaren babeserako eta zuhurtasunerako ondorioak. Kontzeptu hauek garatzen dituzten praktika onak erakutsiko dira.

• Elkarbanatutako ezagutza sustatu, sinergiak aurkitu eta bultzatzeko.

**Hiru saioko Kongresua:**

Aurrenekoa:

• Familia-politikek duten garrantziari buruzko hitzaldia, egoera inbertitzailearen gako gisa. Gaur eguneko egoera politikoan, ekonomikoan eta gizartean duen iraunkortasuna.

• Euskadiko Familia-Politikak duen egoerari buruzko hitzaldia, Europarekin eta gainontzeko autonomia-erkidegoekin alderatuta.

• EAEko familiei laguntzeko erakundeen arteko III. planaren aurkezpena.

Bigarrena:

• Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistemaren ondorioen balorazioa; semealabek gizartean duten garrantzia.

• Kontziliazio erantzunkideari buruzko hitzaldia, familiek dituzten beharrizanei erantzuteko.

• Kontziliazio erantzunkidean erabiltzen diren praktika onei buruzko mahai-ingurua.

Hirugarrena:

• Gurasotasun positiboari buruzko hitzaldia, familien ahalduntzerako paradigma izango den aldetik.

• Gurasotasun positiboan erabiltzen diren praktika onei buruzko mahai-ingurua.

Europako alor desberdinetako adituek parte hartu dute bertan eta ponentzia batzuen laburpenak eskuragarri daude web gunean: *www.congresopoliticasfamiliares.com*

# HEZKUNTZA LEGE BERRIA?

**Gure hezkuntza sistemak dituen erronka nagusienak jasotzen dituen "Euskal Eskola Publikoa haratago" dokumentua aurkeztu genuen maiatzean. Orain, gure egoerarekin eta beharrekin zerikusirik ez duen hezkuntza lege proposamen bat iritsi zaigu Madrildik: proposamen zentralista, elitista eta atzerakoia. Gure aldetik, hauxe eskatu nahi diogu hauteskundeetatik sortuko den Eusko Legebiltzar berriari: gure sistemak dituen erronkak lortzeko akordioak adostu ditzatela.**



Madrildik iritsi den proposamena zentralista, elitista eta atzerakoia da.

Artikulu batean ezin dugunez lege osoa aztertu iritzi batzuk emango ditugu, beti ere gauza garrantzitsu batzuk adierazi nahian eta hau ez dela hezkuntza hobetzeko bidea azpimarratuz.

Lege berriak ez du kontutan hartzen azken urteotan egin dugun ahalegina, ez ditu aintzat hartzen iritzi gehienak, ez du finantzaketa planteatzen, ez du adostasunik lortzen eta, Euskadiko Eskola Kontseiluak dioen moduan, funtsean negatiboki baloratzen du hezkuntza eta ondorioz ezetza eman behar diogu zentralizatzera eroaten gaituen lege honi.

Lege berrian gure Erkidegoa, gure ezaugarri propioak, -sozialak, kulturalak zein linguistikoak- ez dira existitzen; gure hezkuntza sisteman inplementatu ditugun neurriak, gure emaitzak, hezkuntza premia bereziak...ez dira kontenplatzen, are gehiago, legean planteatzen diren neurri asko gure hezkuntza sistemaren aurka doaz.

Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar egitasmoak joan den maiatzean aurkeztu zuen "Euskal Eskola Publikoa haratago" alternatiba. Bertan etorkizunerako erronkak planteatzen ditugu (www.euskalherrirakocurriculuma.org). Herri bezala aurrean ditugun oraingo eta geroko hezkuntza-erronkei erantzuteko egitasmoa da: sistema propioa eraikitzea; inklusibitatea eta erakundeen arteko elkarlana; ikaskuntzaren etengabeko hobekuntza; hezkuntza-sistemaren finantziazioa; ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzeko baliabideak; kudeaketa ekonomiko deszentralizatua eta abar.

Ez dugu horrelakorik ikusi PPren lege berrian, aldiz hauexek dira eman nahi dituzten atzerapausoen adibide batzuk:

### ESKOLA KONTSEILUEK DUTEN ERABAKITZEKO AHALMENA MURRIZTEN DU

Gure gizarteak ezin du ulertu partaidetza handia ez duen hezkuntza sistemarik, eskola komunitateak adostasun eta erabakiak hartzeko eskumenik ez duen eskolarik.

Ikastetxeen ordezkapen organo gorenaren erabaki ahalmena murrizten du, kontsultarako organo bihurtuz soilik eta administrazio eta batzuetan zuzendaritzaren esku utziz erabaki garrantzitsu guztiak. Familiontzat oso kezkagarria da hau, gure parte-hartzeko eskubidea urratzen delako. Eskola-komunitatea osatzen duten eragileen parte-hartzearekin lortzen da hezkuntzaren kalitatea eta ikasleen arrakasta, ez dezagun ahaztu.

### IKASTETXEEN AUTONOMIA HANDITZERA DOAZELA ESAN ARREN MUGATU EGITEN DA

Gehienak ados datoz esatean zenbat eta gaitasun gehiago izan ikastetxe batek erabakitzeko, curriculuma osatzeko eta giza baliabideak zein baliabide teknikoak antolatu eta kudeatzeko, orduan eta hobeak direla emaitzak.

Era berean, datuek adierazten dute familiei ikastetxea hautatzeko aukera emateak ez daukala lotura positiborik hezkuntza arloko ekitatearekin.

Legeak autonomia handitzea adierazi arren kontrako neurriak hartzen ditu: kanpoko probak orokortzen ditu; ikastetxeei arlo horretan zuten autonomia mugatzen die; ikastetxeetako Eskola Kontseiluek erabakitzeko ahalmena galtzen dute eta aholkularitza funtzioa baino ez zaie geratzen, hezkuntza komunitate osoak eskolako bizitzan duen parte-hartze demokratikoko maila mugatuz.

### ESKOLA PORROTA DELA-ETA ALDATU NAHI DUTE SISTEMA, BAINA ESKOLA PORROTA AZTERTZEAN EZ DA KONTUAN HARTZEN LORTUTAKOA EZTA IKERKETEN EMAITZAK

Eskola-uzte goiztiarra murrizteko ahaleginak egin dira. EAEn (%12,6), Alemania, Belgika edo Frantzia bezalako herrialdeen parean eta Finlandiatik oso hurbil gaude.

Estatu mailan tasa lau puntu (%32tik %26,5era) jaitsi da 2004tik 2011ra bitartean. Nahiz eta Estatu espainola helburutik urrun egon, eskola inklusiboaren ereduak eragina izan du hobekuntza horretan.

Baieztapen faltsuz beteriko dokumentua dugu lege berriarena. Eskola-uzte tasak askotan egoera sozioekonomiko eta lan merkatuarekin zer ikusia dauka. Ez da, esaten duten bezala, azterketa emaitza batekin bakarrik lotu behar. Esaterako Gaztela-Leonek irakurketa puntuaketarik handiena -503 puntu- izan arren PISA



Musika erakustaldia Gipuzkoako eskola publikoan.

09-n, %23,3ko eskola-uzte tasa dauka eta Errioxan, 498 puntu lortuta, portzentajea %28,1ekoa da.

### ATZERRIKO HIZKUNTZEN IKASKUNTZA EZ DA HOBETZEN ETA GUREA EZ DA AIPATZEN

Legean ez da aipamenik egiten hizkuntza propioei buruz; euskara, katalana eta galegoa ez dira existitzen, ko-ofizialak bai dira, baina etxean. Gure eskolak eleanitzak dira eta marko berria eskatu dugu, izan ere Europako Batzordeak adierazten duen bezala, "atzerriko hizkuntza ikasteko planak lerrokaturik egon behar du hezkuntza sistema batean dauden hizkuntza guztien ikaskuntza sustatzeko helburuarekin". Marko propioa da gure ikasleriaren interesei dagokiena.

Legeak markatzen duena errealitatetik kanpo dago eta atzetik doa. Hainbat estatuko ikastetxetan programa elebidunak eta hiru eledunak osatzen ari dira. Programa asko kontrastatuta daude eta emaitzak ebaluatuta ere bai kasu askotan. Beraz, "cafe para todos" egin beharrean esperientziak ikustea baino ez dute egin behar.

### SISTEMA SELEKTIBO ETA BANATZAILEA EZARRI NAHI DUTE

Banaketa planteatzen da DBHko laugarren mailan, talentu eta gaitasunen araberakoa, hezkuntzak duen balio eraldatzailea deuseztatuz. Bi bide ezberdin ezartzen dira, 15 urteekin "oinarrizko Lanbide Heziketa" deitzen den modulu batera bidal-tzeko aukera irekiaz. Ez dago aukera berdintasunik ikasleria gero eta lehenago sistematik botatzen bada. Derrigorrezko hezkuntzan lortzen da aukera berdintasuna. Aniztasuna eta baliabideak ez daude legearen helburutan.

Hezkuntza Selektiboa egin nahi dute, beren ikasleak aukeratzen dituzten ikastetxeak defendatzen dituzte, balio hezitzaile baxuko programak batzuentzat eta bikaintasuna besteentzat. Bikaintasun maila hobetu behar da baina ez ikasleriaren zati bat albo batera utziaz.

Azken urteetan lortu duen maila eta balore soziala kendu nahi zaizkio Lanbide Heziketari. Ez, ez da nahikoa LHren garrantzia azpimarratzea, gero bigarren mailako bide akademiko bezala agertzen bada, edo zailtasunak dituzten ikasleentzako prestatutako bide bezala garatzen bada. Gure enpresek ongi dakite kualifikazio profesionalak behar dituztela, orain arte izan dituztenak bezalakoak eta hobeagoak.

Eskola inklusiboak aukera berberak eskaini behar dizkie ikasle guztiei eta, era berean, desberdintasunak konpentsatzeko baliabideak behar ditu etapa guztietan.

### ESTATU OSORAKO AZTERKETA ETA ERREBALIDEZ BETETAKO SISTEMA DISEINATU DUTE, BERTAKO IBILBIDEAK KONTUTAN HARTU BARIK

Estatu osorako azterketa eta errebalidez betetako sistema diseinatu dute, bertako ibilbideak kontutan hartu barik.

Kanpoko test estandarizatuak jarri dira ziklo eta etapetan (bost kanpo ebaluaketa proposatzen dira: bi lehen hezkuntzan, bi DBHn eta bat Batxilergoan). Horietaz gain, errebalida DBHko 4.mailan eta Batxilergoan.

Faltsua da "Europako herrialde gehienek proba nazionalak antolatzen dituzte eta horien emaitzek ikasleen etorkizuna baldintzatzen dute" dioen baieztapena. Europako herrialde gehienetan ez dago proba estatalik, eta halakorik badago, ez du eraginik hezkuntza ibilbidean.

Asko eztabaidatu dugu honetaz eta denok dakigu kanpoko ebaluaketek muga bat dutela ikasle bakoitzaren maila neurtzeko. Oso garrantzitsua da ikaslea ezagutzea eta bere ibilbidea baloratzea, horrek adierazten baitu azterketekin batera, bere errendimendua.

Kanpoko ebaluaketari baietza eman behar zaio baino neurtuta. Eta gainera, zergatik ez dira kontutan izaten hemen diseinatutako azterketak? Non geratzen da irakaslearen ebaluazioa? Eskolaren iritzia? Ez dago autonomiarik ezta errespeturik irakaslearen lanari.

Hezkuntza sistema eraginkorrenak hezkuntzan inbertitzen dute, giza baliabidetan, baliabide material eta ekonomikoetan. Eta "gero" hasten dira ebaluazioak egiten.

## No podemos aceptar una ley centralista, elitista, homogeneizadora... Hemen geuria!

Sin tener en cuenta todo lo realizado, sin consenso, sin debate, sin financiación... la reforma del ministro Wert supone la séptima ley orgánica de educación de los últimos 30 años (los países europeos mantienen las leyes generales y realizan, cuando es necesario, reformas parciales).

La ley vuelve a plantear aquellos temas que no pudieron llevarse adelante con el gobierno de Aznar (LOCE) y quieren echar por la borda los avances educativos conseguidos en los últimos 20 años.

Es de nuevo una reforma que responde a la ideología del PP y no a mejoras educativas. La centralización, menor participación de las familias, la educación diferenciada, la evaluación como única forma de medición, la desconfianza en el profesorado, la segregación temprana a los 13 años...muestran que el cambio es claramente ideológico.

Euskal Eskola Publikoa Gaur Bihar (formada por EHIGE, BIHE y Sarean) presentó en mayo los trazos más importantes de las acciones educativas que debemos abordar los centros educativos públicos para garantizar el mejor servicio posible a nuestro alumnado: desarrollo del currículo, sistema propio, escuela inclusiva, mejora continua, marco multilingüe, gestión, financiación, TICs... El documento se titula "Euskal Eskola Publikoa haratago" y lo podéis encontrar aquí: www.euskalherrirakocurriculuma.org/.

La ley del PP dista mucho de nuestras propuestas. Queremos destacar algunos de sus aspectos como:

**MENOS AUTONOMÍA: EL CONSEJO ESCOLAR PASA A SER UN ÓRGANO MERAMENTE CONSULTIVO.** Plantea "autonomía" de los centros para diseñar e implantar métodos pedagógicos propios mientras se da menos capacidad de decisión al Consejo Escolar, menos decisión en el currículo, menos decisión en los exámenes... En las comunidades autónomas hoy en día hasta la selectividad y los exámenes oficiales de las escuelas de idiomas son competencia propia, en adelante?

No podemos entender un sistema educativo vasco sin una gran participación social. No queremos una escuela sin consenso y decisión de la comunidad educativa.

**AUMENTA EL PORCENTAJE DE CONTENIDOS MÍNIMOS QUE FIJA EL ESTADO** en los currículos escolares, recortando el margen que ahora tienen las comunidades autónomas y los centros educativos. El Gobierno decidirá hasta un 75% de lo que se enseñe en las aulas. Quieren desterrar todo el trabajo realizado en torno al currículo vasco de los últimos años. Excluir, centralizar, homogeneizar son sus premisas.

**EL EUSKARA**, el catalán y el gallego no existen en la nueva ley y no se tienen en cuenta las recomendaciones europeas para el aprendizaje de las lenguas ni las experiencias multilingües desarrolladas hasta ahora.

**PÉRDIDA DE HORARIO** para quienes tenemos dos lenguas oficiales para la enseñanza de o en las distintas lenguas. Al aumentar los horarios de asignaturas comunes para todo el Estado no queda margen para adecuarlos a las necesidades de nuestro alumnado.

**SEGREGACIÓN** en cuarto de la ESO que se va a «transformar» en un «curso de iniciación» con dos opciones hacia FP o hacia el Bachillerato y en tercero de la ESO. Se introducirán asignaturas con un componente «más académico» o «más aplicado», es decir con un contenido más bajo. Esto puede suponer una degradación de nuestra Formación Profesional.

**ADELANTO DE LA FP A LOS 15 AÑOS,** con un nuevo ciclo que se llamará FP básica y que dará lugar a un título propio. Quita posibilidades al alumnado que necesita más tiempo para la ESO. Faltan programas de atención a la diversidad.

**EXÁMENES UNIFICADOS PARA TODO EL ESTADO, REVÁLIDAS Y EVALUACIONES EXTERNAS.** Examen en 3º y 6º de primaria. Nueva «prueba de diagnóstico» en 3º de ESO.

**REVÁLIDA** en 4º de la ESO y al final del Bachillerato... La mayoría de países europeos no tienen prueba estatal. No se da importancia a la evaluación continua, al criterio del centro o a conocer al alumnado.

Para terminar, recordar que el éxito escolar de la inmensa mayoría es la que hace una sociedad más equitativa. La convivencia se deteriora planteando mayores diferencias entre las clases sociales, mayores diferencias en los logros educativos... Dejando a un lado lo logrado, aumentado la ratio y despidiendo profesorado no se consigue la atención individualizada que necesita el alumnado para el éxito escolar.

Tras el trabajo realizado los últimos años no nos merecemos esto. Tenemos nuestros propios retos y queremos que las y los políticos que configuren el próximo Parlamento Vasco sean capaces de consensuar aquellas medidas que favorezcan el logro de dichos retos. Desde la transversalidad, desde la pluralidad, queremos una mayoría política firme que los desarrolle.





Haurren elikadurak berebiziko garrantzia dauka eta horregatik arreta berezia merezi duen gaia da.

Info +:
Manifestuari atxikitzeko idatzi hona:
ekoizpen@urduna.com

# ESKOLA-JANTOKIEN DEKRETU BERRI BATEN ALDEKO AGIRIA

**EHIGEk bat egin du eskola-jantokien dekretu berri baten aldeko agiriarekin. Ikastetxeek, GGKEk, sindikatuek eta produkzio ekologiaren arloko erakundeek osatzen dute lan-talde hau.**

## MANIFESTUA

Jantoki kolektiboak oinarrizkoak dira tokian-tokiko elikadura sistema iraunkorrak eraikitzeko. Hamarkada batzuen buruan, ordea, jantokien kudeaketa eredua aldatu egin da: lehengaiak eremu hurbilean eskuratzetik (ekoizle zein komertzio txikien bitartez) erabateko deslokalizaziora pasa gara, elikagaiak munduko edozein partetik heldu daitezkeelarik. Honi gehitu behar zaio, gainera, irabazi enpresarialeri lehentasuna ematen zaiela.

Aldaketa honen ondorioz, ekoizleek eta komertzio txikiek hurbiltasuneko merkatua garrantzitsua galdu dute. Aldi berean, jantokietako erabiltzaileek ikusi dute nola elikagaien kalitateak behera egin duen. Beste aldetik, egungo Garapenerako Plangintzek, Tokian-tokiko Ekoizpena Sustatzeko Ekimenek edota Komertzio Txikia Biziberritzeko kanpainek eskatzen dute jantoki kolektiboen kudeaketa eredua aldatzea.

Horrez gain, eskola-jantokiek badute beste alderdi bat, heziketarako tresna garrantzitsua baitira. Izan ere, egun eskola-jatokietan bazkaltzen dutenak izango dira etorkizuneko ekoizle eta kontsumitzaileak. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den ereduak, ordea, biztanleriak lurrarekiko daukan lotura eteten du, elikadura-kulturarekin gertatzen den moduan.

Azpimarratu behar da eskola-jantokien kudeaketari buruzko erabakiak Hezkuntza Sailean hartzen direla, era esklusiboan. Aldiz, gure eritzia da honelako erabakiak aho batez hartu beharko liratekeela, gaian zeresana daukaten Sail guztien (Nekazaritza, Osasuna, Ingurumena,...) arteko azterketa eta hausnarketa egin ondoren. Era honetan, garapen-politika ezberdinen artean sortzen diren kontraesanak ere sahiestuko lirateke. Alegia, Sailen arteko politikak garatu beharko lirateke, garapen jasangarriaren helburuak elkarlanean lortu aldera.

Horiek horrela, agiri hau aurkeztu nahi dugu hurrengo arrazoiengatik:

1) Ekoizpen eta kontsumo arduratsurako erizpideak lantzen dituzten eskola-jantokien **proiektuak laguntzea**. Erizpide hauek izango lirateke: elikagaien eraldaketa eta prestaketa ahalik eta eremu hurbilenean egitea; nekazaritza eredu ekologikoan ekoiztutako sasoiko elikagaien kontsumoa eta tokian-tokiko elikadura-ohituren berreskurapena; jantokien egungo kostuak txikitzea, aldi berean langileen lan-baldintzak hobetuz eta egiten den gastu publikoa arrazionalizatuz.

2) **Desadostasuna erakutsi,** kudeaketa-eredu bakar, baztertzaile eta erabat zentralizatzaileak eragin baitu eskola-jantoki publikoen kudeaketa negozio huts bihurtzea, enpresa pribatuen irabaziak handitzeko. Gure aburuz, bada garaia egoera hau sala-tzeko.

3) **Aditzera eman** hurrengo Legegintzaldian zehar legekoa ez den proiektu proposamena aurkeztuko dugula, eskola-jantokien inguruan indarrean den Dekretua aldatzeko. Gure asmoa da, tokian-tokiko kudeaketa zuzena egin nahi duten eskolek horretarako aukera izatea, eredu arduratsuak, iraunkorrak eta konprometituak hobetsiz.

Jokoan daukaguna gure osasuna eta tokian-tokiko ekonomiaren biziraupena dira.

# POR UNA ESCUELA PÚBLICA Y LAICA: LA RELIGIÓN FUERA DEL HORARIO ESCOLAR

**EHIGE se ha adherido a la campaña "Por una escuela pública y laica. Religión fuera de la escuela" que ha puesto en marcha la asociación Europa Laica a nivel estatal.**



La escuela no debe segregar al alumnado en base a las creencias de sus padres y madres

+Info:
www.laicismo.org

Uno de los objetivos de esta campaña es recordar que los padres y madres tienen derecho a que sus hijas e hijos no asistan a la clase de religión y a que todo su tiempo lectivo sea utilizado para desarrollar el currículum general. Por tanto, nadie debe ser discriminado en función de la voluntad que tenga una parte del alumnado a asistir a religión.

Además de explicar qué es el laicismo, dentro del manifiesto se dan una serie de **orientaciones a la Comunidad Educativa:**

**A LOS PADRES Y MADRES:**
Tienen DERECHO a que sus hijos NO ASISTAN A CLASE DE RELIGIÓN y a que todo su tiempo lectivo sea utilizado para desarrollar el currículo general. Por lo tanto, NADIE debe ser DISCRIMINADO en función de la voluntad que tenga una parte del alumnado de asistir a religión.



A pesar de recientes sentencias judiciales, en aplicación estricta del artículo 16.2 de la Constitución de 1978, NO hay obligación de contestar "SÍ" o "NO" a la hoja que el centro presente sobre si quieren que sus hijos reciban clase de religión. No es constitucional tener que declarar, en documento público, sobre la ideología, la religión o las creencias. Quienes quieran, pueden hacer llegar al centro el deseo de que su hijo o hija asista a clases de religión, sin que haya necesidad de preguntar al conjunto de las familias.

Aunque los hubieran inscrito en la asignatura de religión, en cualquier momento del curso pueden cambiar de opción.

**AL PROFESORADO:**
Su labor docente debe estar orientada a que el alumnado adquiera una amplia cultura, conozca la historia y las aportaciones artísticas, culturales y sociales de las religiones y de otras convicciones morales y filosóficas, pero dentro de las áreas de las ciencias sociales, de la historia o de la filosofía. Para ello NO es necesaria que la religión esté en la escuela. Menos aún que en cualquier materia se introduzca un adoctrinamiento de índole particular.

Además de la defensa del carácter laico que le es propio a la Escuela Pública, resulta inadmisible que el currículo común se vea disminuido por las miles de horas asignadas al adoctrinamiento religioso; que en pleno periodo de recortes, despido de interinos y grave disminución de plantillas se otorgue un trato de privilegio a los profesores catequistas manteniendo su plaza, como sucede en varias Comunidades Autónomas, aun cuando no tengan horas suficientes de su materia, permitiéndoles impartir clases de otras asignaturas.

**A LOS ESTUDIANTES:**
Deben exigir su derecho a recibir una educación democrática, humanista y científica, que fomente el espíritu crítico, que tenga en cuenta la diversidad y eduque en la convivencia, que enseñe a pensar y que defienda la libertad de conciencia. Deben oponerse a ser discriminados y separados en grupos, en función de creencias religiosas.

Su horario lectivo no tiene por qué verse alterado ni condicionado por la opción de algunos a recibir clases de religión. El deseo de unos, NO puede atentar contra la libertad y los derechos de otros.

**EL CONJUNTO DE LA COMUNIDAD EDUCATIVA PUEDE TOMAR INICIATIVAS PARA:**
Exigir la retirada de cualquier simbología religiosa en los centros educativos, ya que son espacios públicos e institucionales, y no pueden verse referenciados a lo que, en todo caso, representa creencias y convicciones particulares.

Defender en todo momento que la escuela no es el lugar adecuado para difundir una doctrina religiosa, sus códigos, rituales y libros sagrados.

Denunciar que las clases de religión interrumpen el funcionamiento común e integral del horario lectivo e impide que ese tiempo se dedique a desarrollar otro tipo de áreas y aprendizajes. Con la normativa actual, la religión ocupa una media de 945 horas en el conjunto de las etapas Infantil y Primaria y de 450 horas en la ESO, carga horaria superior a la de otras materias imprescindibles para una educación integral.

Promover en los centros un proyecto educativo laico, que propicie los valores universales comunes a todas las personas.



# GURASO ELKARTEEN HEZKUNTZA JARDUERA ONEN 3. LEHIAKETA

# 3er. CONCURSO DE BUENAS PRÁCTICAS EDUCATIVAS DE AMPAs

**1.500€** lehen saria / primer premio
**1.000€** bigarren saria / segundo premio
**500€** hirugarren saria / tercer premio
***1.000€** sari berezia / premio especial

**SARI BEREZIA / PREMIO ESPECIAL***
Sari berezia gurasoen parte-hartzea sustatzen duen ikastetxeko proiektuarentzat.
Premio especial al proyecto de centro que promueva la participación de las familias.

**INFO+**
www.ehige.org/praktikaonak
Baita federazioetan ere:
Baikara 943327208 BIGE 944169360
Denon Eskola 945256162

**+INFO**
www.ehige.org/praktikaonak
Y en las federaciones:
Baikara 943327208 BIGE 944169360
Denon Eskola 945256162

ANTOLATZAILEA

ehige
gurasoen elkartea

BABESLEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# LAS EMOCIONES, PROTAGONISTAS EN LOS CURSOS PARA MADRES Y PADRES QUE IMPARTE BAIKARA

## En este nuevo curso escolar son muchas las AMPAS que repiten curso de contenido emocional

Desde hace ya unos años Baikara ofrece al comenzar el curso escolar, a los padres y madres, la posibilidad de llevar a cabo una serie de cursos, con diferentes temáticas, que van, desde la gestión participativa de AMPAS, hasta cómo ayudar a los hijos-as a superar sus conflictos. Estos cursos gozan de gran aceptación entre las AMPAS y de hecho centenares de padres y madres han pasado ya por ellos y, en muchos casos, más de dos veces.

El tema emocional, este año y también en años anteriores, es uno de los más solicitados y así cursos como "Habilidades sociales y resolución de conflictos", "Relaciones entre hermanos", "Autoridad familiar" o "Disciplina positiva" aglutinan a gran parte de los interesados. "Yo este año he repetido porque la experiencia fue tan interesante que no he dudado en apuntarme otra vez", afirma Elisabeth Aguirre, de la ikastola Ibai de Donostia.

Elisabeth se apuntó al curso de "Habilidades sociales y resolución de conflictos" para tener una orientación en situaciones que no sabía cómo afrontar "el curso me dio otro enfoque de la educación porque hay cosas que no sabes y cometes el error de exigirles a tus hijos e hijas algo sobre lo que tú no has hecho una profunda reflexión y este curso te pone en las manos las herramientas necesarias para hacerlo".



### UN GRAN DESCUBRIMIENTO

Del amor al odio, un camino de ida y vuelta; La rivalidad, los celos... y cómo podemos las madres y padres favorecer unas relaciones equilibradas; Características de las relaciones entre hermanos- as; Recreando la cultura familiar de compartir y Semejanzas y diferencias: como las afrontamos. Estos son los puntos que se tratan dentro del curso "Relación entre hermanos" que se ha llevado a cabo en el centro donostiarra Altza ikastetxea y que ha resultado un gran descubrimiento para la mayoría de los/las asistentes.

"Yo me apunté por curiosidad porque alguna gente del barrio que iba me insistía en que era muy bueno y que me iba a venir muy bien y he acabado repitiendo, de hecho este año me he vuelto a apuntar", cuenta Idoia Latierro, una madre de Altza ikastetxea.

Esta madre estudió puericultura y para ella el curso resultó ser una manera de retomar estos estudios y de poner en práctica tanta teoría mientras que para Gelu Bueno, también de Altza ikastetxea resultó la manera de aprender a conocer a su hija. "El curso me enseño a ver que hay otras madres como yo, con los mismos problemas para entender a sus hijos e hijas y que no estoy sola, que los miedos de mi hija son los miedos de otros miles de niños y niñas y que es una fase normal por la que tienen que pasar".

Cada uno de estos padres y madres se enfrentan diariamente al ejercicio de un oficio para el que no naces enseñado, el de padre o madre, y Baikara les aporta esa guía que les ayuda a hacer el camino más sencillo.



Los cursos gozan de gran aceptación entre las AMPAS; de hecho, centenares de padres y madres han pasado por ellos.

# IKASI, BIZI ETA ELKARBIZI ESKOLAN

**Familia eta Eskola: zeregin komun bat deritzon Programaren esparruan, hezkuntza komunitatean elkarbizitza positiboa dugu ardatz gisa.**

Programa honen parte, familiei, ikasleei eta irakasleei zuzenduriko programak ditugu. Hauen xedea, tolerantzia eta solidaritatea lantzearen bidez, balio egokiak indartzea da; gure haurrak zein gazteak tolerantziarik gabeko jarrerak errefusatzean prestatuz eta lankidetza jarrerak edota elkarrekiko errespetua sustatuz.

Baikarak ikasleriarekin burututako Programa guztien oinarria ELKARBIZITZAk biltzen dituen baliotan datza. Hain zuzen ere, ezin dugu ikasleen ongizatea ulertu, elkarbizitzarik gabe. Burututako ekintzek, ikasle bakoitzak prozesu batean inplikatzea eragiten dute. Horrela, egun gutxitan, taldean onurak nabaritzen dituztela argi uzten digute. (Esate bateko, ondorengo sentipenak azalduz).

Hau guztiarengatik, gurekin izandako ikasle guztiak zoriondu nahiko genituzke, erakutsitako zintzotasunak izugarrizko ausardia suposatzen duelako; benetan baliabide asko dituztelako taldean denak eroso eta hobe senti daitezen.



Tolerantzia eta elkartasuna landu dituzte ikasgeletan.

"Gehiago elkar ezagutzen dugu"

"Gelakoekin uste baino antzekotasun gehiago ditut"

"Denok ezberdinak gara eta ez batzuk arraroagoak"

"Elkarrekin denak ondo pasatzeak, gehiago hurbildu gaitu"

"Harreman gehiago ditut eta aurretik neuzkanak handitu dira"

"Denon artean hobeto konpontzen gara"

"Lagunen artean elkarbizitzen ikasi dugu"

"Orain besteak gehiago baloratzen ditugu"

"Taldean gehiago errespetatzen gara"

"Besteen iritziak kontuan hartuko ditut"

"Taldean elkarri laguntzen askoz hobe sentitzen gara"

"Norbait bakarrik sentitzen denean oso gaizki pasatzen du"

"Taldeko parte ez zarenean sentitzen, oso triste egoten zara"

"Inork ez du merezi apartatua izatea"

"Edonork gorabeherak izan ditzake taldean"

"Modu dibertigarrian erlazionatu gara"

"Eskertzen da horrelako aukera ematea"

"Bizitakoa berriro errepikatuko nuke"



Mandala egin dute barazki eta fruituekin Samaniego ikastetxeko ikasleek.

# SAMANIEGOK TOLOSAKO ESKULTURASTEAN PARTE HARTU DU

## 600 kilo barazki eta fruiturekin osaturiko mandala egin zuten ikasleek

Irailaren amaieran, Samaniego ikastetxeak, Tolosako beste ikastetxe batzuekin batera, herriko Euskulturastea dela eta antolatutako proiektu batean parte hartu zuten. Herriko hainbat eragilek sustatutako ekimen haren helburua zen artea kalera ateratzea; eta ederki bete zuten helburua.

Guztira, 600 kilo tomate, porru, alberjinia, kuiatxo, piper, udare edo laranja bildu zituzten San Frantzisko pasealekua apaintzeko alfonbra-mandala egiteko. Ikastetxeetako haurrek ia goiz osoa eman zuten barazkiak txukun-txukun antolatzen, lana burutzeko. "Primeran pasatu dugu, lehen aldia zelako horrelako zerbait egiten genuen", zioten ikasleek.

Ikasle bakoitzak bina euro jarrita, barazkiak eta frutak erosi ziren. Mitxel Perales antolaketa batzordeko kideak azaldu zuenez, asmoa haurrak zuzenean inplikatzea zen: "Jakiak doan emanez gero, ez dira jabetzen haien balioaz, eta, horrela, pentsatu genuen bina euro eskatuta beste ikuspegi bat hartuko zutela elikagaiei buruz". Jardunaldiaren amaieran, mosaikoa desegin, eta abegi etxeari, Cáritas elkarteari eta Elikagaian Bankuari eman zizkioten frutak eta barazkiak.



# UGARO INAUGURA LA NUEVA CAMPAÑA ESCOLAR DEL TOPIC

## El Topic acaba de inaugurar su nueva campaña escolar con la visita de niños y niñas procedentes de Ugaro Herri Eskola de Legorreta, entre otros.



La campaña está dirigida al alumnado a partir de cuatro años.

La Campaña escolar está dirigida al alumnado a partir de 4 años, fundamentalmente educación primaria, que quiera conocer un poco más el Topic y el tesoro de los títeres, realizando un divertido trabajo en el aula antes y después de su visita.

La actividad consta de la realización de un sencillo trabajo lúdico en el centro escolar; una jornada en el Topic, desde las 10.00 hasta las 15.00 horas; ver una representación y charlar con los artistas; hacer un taller de construcción de títeres y realizar en el cole otro trabajo lúdico como cierre de programa. En esta ocasión el alumnado de Ugaro vio la obra Joan Baixas titulada "Música Pintada". Baixas es conocido por su producción de teatro visual donde mezcla la pintura con títeres, máscaras, robots y proyecciones de imágenes.

# TXINGUDI BHI, IRUN. 2012KO EKINTZAK. BRETAINIARA EGINDAKO BIDAIAREN KRONIKA

## 2012ko apirilaren 20an Txingudi BHI-ko, 2. mailako Comenius, English Workshop eta Frantses Tailerretako ikasleak Bretainiara joan ginen.

Irundik gaueko 11tan irten eta gauez egin genuen bidaia. Goizeko 9:00 ak aldean iritsi ginen lehenengo ikusiko genuen herrira, Saint Malo. Bertan, taberna batean, gosaldu eta ondoren bueltatxo bat eman genuen, harresietan zehar, herria ezagutzeko.

Bazkal ondoren, itsasontzi batean, St. Maloko badian zehar txango dibertigarri bat egin genuen; olatu handiak zeuden eta ondo busti, algara batzuk bota eta oso ondo pasa genuen.

Ilunabarrean egoitzara joan ginen eta afal ondoren gure geletan lagunak elkartuz primeran pasa genuen: hitz egiten, litxarkeriak jaten, dantzan... baina 11:00etan, errauzkine bezala, bakoitzak bere gelara joan eta "lo" egin behar genuela esan ziguten irakasleek.

Biharamunean St. Michel ikustera joan ginen. Benetan ikusgarria! Bertan bazkaldu eta arratsaldean Erdi Aroko Dinan herri ikusgarria bisitatu genuen.

Astelehen goizean St. Jacques ikastetxera joan ginen, eta han bertako ikasleak ezagutu eta elkarrekin aritu ginen ekintza desberdinetan: dantzak, abestiak, elkarrekin bazkaldu ...

Oso interesgarria izan zen dena.

Astearte goizean, gosaldu ondoren, etxerako bidea hartu genuen eta ilunabarrean iritsi ginen, nekatuak baina oso oroimen onekin.

BERRIZ ERE JOANGO GINATEKE!

**THE EUROPEAN DAYS, KRONIKA. MAINZ, ALEMANIA 2012KO MAIATZAREN 6TIK -12RA**

Maiatzaren 6an, Txingudi BHIko irakasle bat eta laugarren mailako hiru ikasle Alemaniara joan ginen, bertan Mainz hiriko OTTO-SCHOTT-GYMNASIUM eskolak antolatutako "International Days" ekintzetan parte hartzera gonbidatuak izan baikinen.

Herrialde hauetako partaideak ginen, herri bat eskola bat: Alemania, Austria, Belgika, Euskal Herria (Txingudi BHI), Hungaria, Italia, Luxenburgo, Moldavia, Polonia eta Portugal.

Tren geltokira iritsi ginenean bertan ziren, gure zain, gure alemaniar "familiak", euron etxeetan egongo baikinen aste osoan.

Biharamunean, astelehena, eskolara joan ginen eta han hasi zen gure esperientzia berria. Talde lan batzuk egin genituen elkar ezagutzeko. Egunek aurrera eginahala gero eta gusturago aurkitzen ginen bai familietan, bai kideekin, bai eskolan... Era askotako ekimenak egin genituen: migrazioa eta integrazioari buruzko lanak, filmak ikusi eta posterrak egin, Mainz-en zehar argazkiak atera hurrengo egunean inmigrazioari buruzko lanak egiteko...

Eta... azken eguna iritsi zen. Gure herrialdeen aurkezpena egin eta elkarri agur esatekoa.

Alde batetik penatan ginen astea bukatzen zelako, baina bestetik pozez esperientzia paregabe bat bizitzeko aukera izan genuelako eta, gainera, lagun berri asko egin genuelako.

BENETAN ERREPIKATZEKOA.





Goio argazkian, Alemaniako Mainz herrian bildu zirenak, euskaldunak barne. Behekoan, Bretainiako kaleetan hara egindako bidaian.

## Hezkuntzan, GEU ERAGILE

**MANIFESTUA**

Sektore publikoan, orokorrean, eta Hezkuntzan gertatzen ari diren murrizketen inguruan, sinatzaileok zera adierazten dugu:

1. Hezkuntza komunitateko langileon profesionaltasunak eta gurasoen konfidantza eta inplikazioak ekarri duela Hezkuntza publiko euskalduna, egun dauzkagun kalitate eta duintasun parametroetara, eta harro gaudela egindako lanaz.

2. Hezkuntza komunitateko langileon kontra jarritako desprestigiatze kanpainaren azken helburua, Hezkuntza publiko euskalduna desegitea eta derrigorrezko zerbitzu sozial hau getto bihurtzea dela, pribatizazioaren mesederako.

3. Hezkuntza komunitateko langileon lan-baldintzak okertuz (gelako ikasle kopurua handituz, baliabide gutxiago eskainiz, ordezkapenak murriztuz, bajak zailduz, aparteko lanak ezarriz....) gure lanaren emaitza, ezinbestean, gainbehera joango dela, denon kalterako.

4. Horrek eragin zuzena izango duela ikasleen formakuntzan, hezketan, eta Hezkuntza publikoaren desprestigioa ekarriko duela.

5. Hezkuntza publiko euskaldunari egiten zaion eraso honek ez duela krisiaren arazoa konponduko eta aitzakia besterik ez dela, gizarte solidario eta soziala birrintzeko.

6. Hezkuntza publikoko hezkuntz komunitateko kideen ustez, ezinbestekoa dela gizarte eredu sozial eta solidarioa bultzatzea, defendatzea, beste sektore publiko guztiekin batera.

# DOMINGO AGIRRE ESKOLA: 'JUNETORRIAN'



Junetorri' autobusari esker, herriko txoko guztiak ezagutzeko parada izan dute haur txikiek. Esperientzia ederra izan da ezagutzen ez zituzten lekuetara joatea.



Domingo Agirre eskolako haur hezkuntzako ikasleak, bost urtekoak hain zuzen ere, eta garraio gaia lantzerakoan, Legazpin jarri berria den 'Junetorri' autobusak eskaintzen digun aukera paregabea aprobetxatu dugu.

Hori dela eta, garraia hau erabiliz, gure txikiak, herrian zehar bidaiatzen ibili dira eta haientzat ezezagunak ziren herriko zenbait txoko ezagutu dituzte.

Ondoren lanera! Ikasitakoa hormiruditan irudikatu dugu. Hormirudiak, haur hezkuntzako pasiloetan nahiz eskolako web orrialdetan ikusgai duzue.

www.domingoagirre.net

Esperientzia ederra, berria, aberatsa eta dibertigarri izan da partaide guztiontzat.

# SASOETA-ZUMABURU IKASTETXEAK PARTE HARTZE AKTIBOA LASARTE-ORIAKO EUSKARAREN MARATOIAN







Lau urtean behin ospatzen den Euskararen Maratoian parte hartze nabarmena eduki dute Sasoeta-Zumaburu ikastetxekoek. Ezkerreko hiru argazkietan, zentru honetako ikasle eta irakasleak hainbat ekimenetan parte hartzen.

## Urriaren 20 eta 21-ean Lasarte-Orian Euskararen Maratoia ospatu da.

Urriaren 20 eta 21-ean Lasarte-Orian Euskararen Maratoia ospatu da. 4 urtero bezela, 40 orduz ekintza desberdinak antolatu dira herriko Okendo Plazan, denak euskerarekin lotura izan dutenak, eta bertan, Sasoeta-Zumaburu ikastetxearen partaidetza nabarmena izan da, eguraldiak jarritako traba guztiak gaindituz.

Alde batetik, larunbat goizean eskolako irakasle eta ikasleek roc-keroz jantzi eta oholtza gainean beraien erritmoa eta dantza grina erakutsi dute. Bestalde guraso elkarteko kideek larunbat eguerdian umeentzako tailerrak antolatu dituzte, globoflexia, eskulanak, karetak, aurpegi margotzea etab. egiteko aukera izan dutelarik herriko umeek. Bien bitartean, guraso elkarteak ere, ostiralero eskolan egiten den Esazu Irratsaioa plazara eraman dute. Bertan Andoni Otamendi eta Zigor Iriondo bertsolari lasartearren bertsoez gozatu ahal izan degu eta baita Lasarte-Oriako Alkateari eta Lasarteko zenbait kultur eragileri umeek egin dizkieten elkarrizketetaz.

Eta azkenik igande arratsaldean, Maratoiaren egitarauaren barruan, guraso elkarteko zenbait kidek eta umek Lasarte-Oriako Benedika mendira egin dute ibilaldia. Nabarmentzekoa da euskeraren aldeko ekintza honetan ikastetxeko zuzendaritza, irakasle, guraso eta ikasleek izan duten parte hartzea eta elkarlana.

# EL INSTITUTO ZUAZOLA-LARRAÑA PARTICIPA EN EL PROYECTO EDUCATIVO COMENIUS

**Los protagonistas se acogen mutuamente y comparten idiomas, cultura, juegos y tradiciones.**

Doce estudiantes procedentes de diversas poblaciones de Alemania, Dinamarca, Turquía y Polonia acompañados por doce profesores/as, llegaron hace unos días a Oñati dispuestos a disfrutar de un intenso intercambio, dentro del proyecto educativo europeo 'Comenius' en el que participa el Instituto Zuazola Larraña.

Los protagonistas se acogen mutuamente y comparten idiomas, cultura, juegos y tradiciones fomentando el trabajo conjunto por un modelo europeo de formación para los jóvenes más allá de la enseñanza oficial. Alumnado oñatiarra ya ha estado en Alemania y Polonia, y ahora ejerce de anfitrión antes de visitar Turquía y Dinamarca la próxima primavera.

## UNA AGENDA DE LO MÁS COMPLETA

Durante esos días han conocido la realidad educativa oñatiarra, así como su dimensión intercultural, costumbres y estilo de vida. El programa ha combinado excursiones, citas deportivas, gastronómicas y culturales con las meramente educativas. Han visitado Donostia, el entorno natural local con visitas a Arrikutz, el Santuario de Arantzazu, el Parketxe y Gomiztegi.

Una cita en la que además de profundizar en los fundamentos teóricos del programa de intercambio múltiple, ha habido exhibición folklórica de los dantzaris de Oñatz, stands informativos de cada territorio y, como fin de fiesta, representación de canciones y danzas de Alemania, Dinamarca, Turquía y Polonia.

El centro público oñatiarra participa en este programa europeo que tiene como objetivo reforzar la dimensión europea en el campo de la educación promoviendo la movilidad y la cooperación entre centros educativos de distintos países. Cinco en el caso del proyecto 'Eager to learn, eager to share' (Deseosos de aprender, con ganas de compartir) que el Instituto oñatiarra desarrolla junto a Gimnazjum Publicznew Jablonnie (Polonia), MitMittelschule Stadtsteinach-Untersteinach (Alemania), Praeste Gaardsskolen (Dinamarca) y Ulugbey Anadolu Lisesi (Turquía).





El programa permite compartir experiencias y conocimientos y establecer importantes lazos culturales.

## UNA DURACIÓN DE DOS CURSOS ESCOLARES

El proyecto en sí dura dos cursos escolares (2011-2013), y permite dar funcionalidad y practicar inglés con los alumnos/as a través de intercambios de experiencias, propiciar el conocimiento y reconocimiento entre países y culturas, así como desarrollar un proyecto común entre los colegios implicados.

El singular calendario de este proyecto educativo permitió que hace un año el estudiante oñatiarra Iñaki Mujika pasase una semana en la ciudad alemana de Stadtsteinach, poniendo en marcha la iniciativa 'Job-Shadowing', para empaparse de la realidad social, cultural y educativa germana.

No fue el único. En enero, otros cuatro estudiantes (Ainize Arrazola, Lur Paramos, Ane Irigoyen y Mikel Martín) y dos profesoras convivieron durante una semana en la localidad bávara, acudiendo a las clases como cualquier otro estudiante, visitando la ciudad y sus alrededores y siendo testigos directos de su gélida climatología.

En primavera el relevo pasó a Polonia. Los alumnos Oneka Anduaga, Mireia Santos, Jone Etxeberria, Iñigo Unzurrunzaga y Jokin Rodríguez estuvieron en Lublin y Varsovia acompañados de las profesoras del Instituto Lourdes Ugalde y Lukene Igartua.

El nuevo curso ha arrancado con fuerza al acoger Oñati la 'Semana Comenius' un intercambio internacional intensivo que ha supuesto una excelente oportunidad de aprender y conocer la diversidad cultural europea, al convivir personas de distintas naciones con sus particularidades.

Procedentes de cinco países han estado en la localidad de la mano de Hernani Institutua.


Foto de familia de los participantes en el programa Comenius con el colectivo de Hernani Institutua.

# 40 NUEVOS EMBAJADORES DE HERNANI GRACIAS AL PROGRAMA COMENIUS

El pasado mes de octubre se acercaron a Hernani el colectivo educativo que ha participado en el programa Comenius. Un grupo formado por 29 alumnos/as y 12 profesores/as de 6 centros europeos (Dinamarca, Estonia,Bélgica, Reino Unido, Rumanía, Hungría) que fueron recibidos en el ayuntamiento por miembros del grupo de gobierno municipal.

Tuvieron una agenda de lo más apretada en los días que compartieron con el alumnado de Hernani Institutua. Los alumnos/as participantes en este programa de intercambio europeo procedían de Bélgica, Reino Unido, Hungría, Rumanía y Estonia.

Tuvieron ocasión de conocer Hernani y todo su entorno, pero también de trabajar el tema principal de este programa para la movilidad, centrado en el bienestar, la salud mental, el equilibrio y como combatir el estrés. Para ello asistieron a algunas clases en el centro de Hernani Institutua y compartieron con sus alumnos/as experiencias. Hay que recordar que el centro hernaniarra participa en esta iniciativa con 15 alumnos/as y que durante distintos cursos están acudiendo a los diferentes países con los que comparten experiencia.

Los/las estudiantes extranjeros/as han estado hospedados en las viviendas del alumnao local, mientras que el profesorado lo han hecho en un hostal.


Lagunarteko esperientzia polita izan zen eta ikasleek primeran pasa zuten.

# ELIZALDE IKASTETXEKO IKASLEAK, INGELESEKO BARNETEGIAN

Elizalde ikastetxeko seigarren mailako ikasleek astebe eman zuten Espejoko aterpetxean, Hezkuntza Sailak antolatutako Ingelesean Murgiltzeko Egonaldietan.

Badira hiru urte eskolak ekintza honetan parte hartzen duela. Oraingoan Zegamako Herri Eskolako ikasleekin batera egin zuten egonaldia.

Ikasleak irakasle natiboen gidaritzapean aritu ziren egonaldian zehar: baziren irlandarrak, Zeelanda Berrikoak, ingelesak. Horrez gain, eskolako ingeleseko irakaslearen eta tutoreen laguntza jaso zuten.

"Programa horren helburua lortzeko, hau da, elkarren arteko komunikazioa erabat ingelesez eta motibagarria izan dadin, ekintza didaktiko ugari antolatu dituzte. Lantaldeak sortu dituzte, egoera komunikatibo desberdinak sortu eta bakoitzari dagokion hiztegi espezifikoa landu dute".

Egunero gai baten inguruan prestatu zituzten jarduerak: giza gorputza, uraren zikloa, sukaldaritza, unibertsoa eta informatika. Eta, jarduera horiek bukatutakoan, beste mota batekoak ere egin zituzten: altxorraren bila, futbol partidak, dantza lehiaketak, filmak, Halloween jaialdia.

Lagunarteko esperientzia polita izateaz gain, ingelesaren ezagutza eta erabilera maila hobetu zituzten eta, batez ere, ikasleek primeran pasa zuten.



# ileak tente jarriko dizkizugu,

(esperimentuak zuzenean, museo elkarreragilea…).



## apur bat zorabiatu,

(simulagailuak, ilusio optikoak, txikiklik 4 urtetik 9 urtera…).



# izarrak ikusarazi,

(planetarium digitala, planetarium Txiki).

## eta berdatu egingo zaitugu…

("Gipuzkoa miniaturan" maketa-bilduma, picnic gunea, lorategiak eta gune botanikoa…).



# Eta gainera… eureka! dibertigarria irudituko zaizu.

Zatoz ikastera eta Eureka zientzia-museoaz gozatzera!

Egun ahaztezina igaroko duzue senitarteko eta lagunekin. **Museo bat baino askoz gehiago da**: jatetxe-kafetegia terrazarekin, haur-parkea eta aire zabaleko jokoak, eta aparkaleku zabala.

**Eureka! plan bikaina aurkitu duzu.**

eureka! zientzia museoa

gizarte kutxa

Mikeletegi paseal., 45 (Miramon) - Donostia - gps: 43° 17' 30.55'' - 1° 59' 4.59''
www.eurekamuseoa.es - 943 012 478 - eureka@eurekamuseoa.es